



## **ANTIGUAKO AMA JUBILATUEN ELKARTEA**

Ondarroako 3. adinekoen elkarteak da, eta hainbat ekitaldi antolatzen dituzte urtez-urte. Beraien helburua ekintza sozialak, kulturalak eta dibertimenduzkoak ekintza burutzea da. Horretarako eta elkarrekin egon ahal izateko, Ondarroako Udalarena den lokala dute euren erabilerarako, Artabide 18an.

Ondarroako udaleko Ongizate batzordekidea da.

Lehendakaritza: Lehendakaria: Pili Urruzuno Urresti.

Idazkaria: Pedro Urresti Badiola

Diruzaina: Arrate Alberdi Azkoitia

Urtean behin gutxienez, bilera orokorra deitu eta bideratzen du bertako lehendakaritzak eta urteko diru kontuan zein plangintza azaltzen du, partaideen proposamenak jasotzen dituen bitartean. Udaleko ongizateko zinegotzia ere mahai horretan egoten da udalaren kontuak azaltzeko edo eta dauden zalantzak argitzeko.

Antiguako Ama Jubilatuen Elkarteak, bazkariak, hitzaldiak, txangoak, bidaiak, mahai jokoak, dantza eta memoriako saioak eta beste hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar.

Lea-Artibai mailako beste nagusien elkartekoekin batera ere hainbat ekintza, bazkari edo bidai izaten dituzte denen arteko erlazioak sendotu eta jarraitzeko.

Eta denak gusturago egoteko, tabernaren zerbitzua ere antolatuta dute lokalean bertan, berau zabaldu zenetik. Taberna urte osoan zabaltzen da eta euskara da komunikaziorako lehentasunezko hizkuntza.

65 urtetik gorako herritar guztiok gonbidatuta zaudete bazkide egin eta ekintza guztietan parte hartzeko. Animatu zaitzete!